

# Asisko gutuna

2012ko apirila. 2. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

barnerantz, umiltasuna

42. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asisko gutuna behin eta berriz dator nukleo berberetara itzulian. Lau hilabetetik behin, Asis Sarea egituratzen duten lau printzipioetako bakoitzarekin aurkitzera gatoz, beti ordena berean. Kasu bakoitzean gutun honek bizipen-ikusuntu ezberdinetatik, eta esanahi ezberdinen bidez, egiten die aurre printzipio horiei.

Hil honetan bigarren printzipioarekin dugu zita: “Eguneroko bizitza barnerantz, apaltasuna”. Sufrimendua da gogoetarako gaia. Bizipen honek kontraesan artean jartzen gaitu: zertarakorik ez eta zertarakoa bai, ezina eta itxaropena, errebeldia eta apaltasuna, larrimina eta maitasuna... sufrimenari gizakiagandik eta Jainkoagandik begiratzea.

## Gogoetarako gaia

### Sufrimendua

Inguruan dugun mundua eta giza sufrimenduaren, batez ere errugabeen sufrimenduaren, errealtate latza ikusiz, protesta egiten du gure bihotzak; eta ez du ulertzen zer zentzu duen Jainkoak, maitasuna izanik hainbeste tragedia, abandonu eta sufrimendu izaten uzten duenean. Non dago Jainkoa gerraren erdian? Non dago Jainkoa giza harremanen, kale gorriko haurren, gosearen egoera lazarriaren erdian?

Gaizkiaren zergatiari buruzko galderarentzat, fedea ez dauka nahikotzat eman daitekeen erantzunik. Giza errealtate gogorregien aurrean gustatuko litzaiguke, Jainkoa indartsuagoa izatea eta hark berehalaxe mundua gure ideien arabera aldatzea; nahigabetik libra gaitzan Jainko guztiahaldun bat nahiko genuke, baina horrek hautsi egingo luke giza libertatearen beste misterio hori.

Mendeetan zehar gizakien bilaketa espiritualaren

lekuko den Biblia galdera horren aurrean jartzen da. Salmoak, Jainkoari erregu egiten dion gizakiaren desesperazioaz mintzo dira. Job dugu galdekizun horretaz hitz egiten digun figura; eta azkenean ulertzen du Jainkoak beste bide bat aukeratzen duela, bihotzak sufrimenduan eta apaltasunean aldatzearen bidea hautatzen duela.

Errugabeen sufrimenduaren aurrean, Jainkoaren aurpegiari begira gabiltza erantzun bila. Jainkoak Jesus gurutzatua erakusten digu, munduaren sufrimendua bere bizkarrean hartuz. Hori da kristau fedea muina. Ulertzeko zaila bazaigu ere, Kristo gurutzatuaren bidez solidaritate misteriotu batek elkartzen ditu sufrimendu guztiak. Eta gure ulertu ezina hor gelditurik ere, itxaropen txiki batek bidea irekitzen du gure bihotzean. Zulatu zutenari begiratzea munduaren sufrimenduaren alde otoitz egitea da.

## Ebanjelioko pasartea: Mt 25,31-40

«Gizonaren Semea, aingeru guztiak lagun dituela, aintzaz beterik etortzean, bere errege-aulkian eseriko da.

Herriak oro haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereizi egingo ditu, artzainak ardiak akerretatik bereizten dituen bezala, eta ardiak bere eskuinean eta akerrak ezkerrean ezarriko ditu. Orduan, erregeak eskuinekoei esango die: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartazue munduaren sortzetik zuentzat prestatua dagoen erreinua. Gose bainintzen eta jaten eman zenidaten; egarri, eta

edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri”. Orduan, zintzoek esango diote: “Jauna, baina noiz aurkitu zintugun goseak eta jaten eman genizun, edo egarriak eta edaten eman? Noiz aurkitu zintugun arrotz eta etxean hartu, edo larrugorri aurkitu eta jantzi? Noiz aurkitu zintugun gaixo edo kartzelan eta ikustera joan?” Eta erregeak erantzungo die: “Benetan diotsuet: Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten”.

## Frantziskotar espiritualtasuna

“Hauek dira benetan bakegile: mundu honetan jasanak jasan, Jesu Kristo gure Jaunaren maitasunagatik gorputz-arimetan bakea gordetzen dutenak” (Ahol 15). Frantziskok asko sufritu zuen gorputzeko gaixotasunengatik, anaiek konprenitua ez izateagatik, begietan argi faltan eta bihotzean kontsolamendu beharrean izateagatik. Gaixo, minez, zauritua heldu zen bizitzaren azkenera, baina baketua.

Frantzisko bihozberritzen hasia bera lepradunarekin aurkitzeak eta Gurutziltzatuarekin aurkitzeak markatu zuen, gizakiaren sufrimenduak eta Jesus Jaunaren sufrimenduak. Biak ala biak misteriotsuak eta betiko elkarrekin lotuak. Behartsuen sufrimenduarekin partaide izateak Jesu Kristoren zaurietan barneratu zuen, eta Jesu Kristoren zauriak kontenplatzeak sufritzen zutenengana eraman zuen. Frantziskok zauriek zulatua amaitu zuen, gurutziltzatuaren nekaldian eta maitasunean parte hartuz, horrela Haren bizi-betetasunean parte hartzeko.

“Zorionekoak, gaixotasuna eta larrialdia bakean sufritzen dituztenak, zuk, Goi-goiko horrek, koroatuko dituzu eta (AEgKt 11). Jesu Kristoren zauriek markatua, Anaia Eguzkiaren Kantikan bere ziurtasun handia aldarrikatzen du: “Goi-goikoa, ahalguztiduna, Jaun ona” da Jainkoa. Jainkoaren ontasuna, gaitz eta sufrimendu guztiak baino indartsuagoa da; Haren maitasunak dena mantentzen du eta osotasunera bideratzen. Horregatik, Frantziskok kantuan jarraitzen du gaixotasunean ere, eta gorespenean sufrimenduan ere. Frantziskoren hauskortasun eta ahulezian Jainkoaren indarra gauzatzen da.

## Otoitza

Jainko errukiorra,  
lañoki esanda ez dut ulertzen  
zergatik dator kidan sufrimendu hau.  
Ni beti saiatu naiz  
zure aginduak betetzen, otoitz egiten  
eta Jesu Kristoren Espirituari jarraituz bizitzen.  
Zergatik ez duzu aldendu nigandik  
sufrimendu hau?  
Errukior bazara, zergatik ez nauzu, orduan, atera  
nahigabe honetatik?  
Tentatua nago zuregana ez irekitzeko.  
“Ezerk ez du zentzurik.”  
“Zuri erregutzeak ez dit ezertarako balio:”  
“Gertatu beharrekoa dena, nonbait, gertatzen da”.  
Baina hala ere ez dut Zugandik urrundu nahi.

Zurekin dudak historia  
inportanteegia da niretzat,  
albora utz zaitzadan.  
Entzun iezadazu, nire nahigabea arin dadin.  
Ez gorde niri zeure aurpegia!  
Bidal iezadazu zeure Espiritua,  
amore eman gabe  
neure bidea eginez jarrai dezadan.  
Ager zaitenez nirekin  
Jainko onbera eta errukior.  
Alda ezazu nire sufrimendua,  
horrela berriro malko artean ikus dezadan,  
ez nauzula inoiz ene bizitzan abandonatu  
eta lagun zaitudala ene bide guztietan. Amen.

Anselm Grün

## Gutuneko azken hitzak

“Eguneroko bizitza egiteko, neurri bateko konfiantza behar dugu; sufrimendurik puntakoenari aurre egiteko baldintzarik gabeko konfiantza behar dugu.

## 2012ko maiatzeko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate maiatzeko erreferentzia guztiak:

1 Jn 10,22-30	8 Jn 14,27-31 <sup>a</sup>	15 Jn 16,5-11	22 Jn 17,1-11 <sup>a</sup>	29 Mk 10,28-31
2 Jn 12,44-50	9 Jn 15,1-8	16 Jn 16,12-15	23 Jn 17,11b-19	30 Mk 10,32-45
3 Jn 14,6-14	10 Jn 15,9-11	17 Jn 16,16-20	24 Jn 17,20-26	31 Lk 1,39-56
4 Jn 14,1-6	11 Jn 15,12-17	18 Jn 16,20-23 <sup>a</sup>	25 Jn 21,15-19	
5 Jn 14,7-14	12 Jn 15,18-21	19 Jn 16,23b-28	26 Jn 21,20-25	
6 Jn 15,1-8	13 Jn 15,9-17	20 Mk 16,15-20	27 Jn 20,19-23	
7 Jn 14,21-26	14 Jn 15,9-17	21 Jn 16,29-33	28 Mk 10,17-27	

# Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

# Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

## Asisko gutuna

2012ko apirila. 2. printzipioa: eguneroko bizitza.

barnerantz: apaltasuna

42. zenbakia

Sufrimendua dugu gogoetarako proposaturiko gaia: norberaren eta munduaren sufrimendua; berori, geure burua Bestearen (Jainkoaren) eskuetan uzteko apaltasunetik biziz, soilik, bizi dezakegu fedetik eta gure bizitzari zentzua emateko moduan.

### Sufrimendua

Gutun honetako gogoetan, errugabeen sufrimenduan Jainkoaren bila ibiltzea eskaintzen zaigu. Hasteko galde iezaiozu zeure buruari, zeintzuk diren zuretzat une honetan errugabe horiek. Gerrako izugarrikeriak, gosea, utziak izatea, bakardadea... jasaten dituztenak. Zer eskatuko zenioke Jainkoari haientzat? Gustatuko litzaizuke Jainkoak haiei arazoak konpontzea, laguntza eta konpainia ematea. Ez ote dizu eskatzen, zuk zeuk egitea hori Haren ordez?

Bibliaren bidez hitz egiten digu Jainkoak, eta prest dago gure bihotzak aldatzeko, apaltasunez berari egiten uzten badiogu. Bibliako zein testuk laguntzen dizu gehien, hainbat inozenteen sufrimendua Jainkoagandik bizitzen? Erabil ezazu testu hori otoitz egiteko eta zure inguruan sufritzen dagoenarengana hurbiltzeko.

Jesusek munduko sufrimendu guztia eraman zuen gurutzera, Harengandik sufrimendu hori besteenera bihotza irekirik bizi ahal dezagun, eta berori Haren ondoan gizadiari arintzen saia gaitezen, egunero berarengana pixka bat gehiago hurbilduz. Egizu otoitz Hari begira, kontenpla ezazu gurutzean, eta eskertu iezaiozu giza sufrimendu guztia Berarekin gurutzean egotea gure bizitzari zentzu betea emateko.

### “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok” ...

Ebanjelioko pasartean Jesus azken judizioaz mintzo zaigu. Ze erreakzio sortzen digu hitz horiek entzuteak geure baitan? Jesusek bertan hitz egiten digu, Bera betikotasunetik giza bihotzen muina aztertzerako etorriko den momentuaz. Merituak ebaluatuko ditu Jainkoaren aurrean, eta gizon-emakume guztiok geure betiko destinora bidaliko gaitu. Nola ari naiz prestatzen Jainkoaren aurreko ebaluazio horretarako? Zer sentitzen dut? Beldurra, nahasmendua, konfiantza apala...?

Horrez gain testuak ematen digu zein izango den gu juzgatzeko erabiliko den baremoa. Hain zuzen, ongia eta haren Erreinua munduan zabaltzeko egindako borroka, ahalegina eta sufrimendua. Azken batean, neurria hau izango da: maitasunera irekiak, maitasuna emanaz eta

hartuz, bizi izan garen, ala geure baitara bilduak, maitasuna hartzeko eta emateko gauza izan barik. Nire bizitzako une honetan, nola dabilkit besteenganako maitasuna? Prest nago, nire bihotza egunez egun pixka bat gehiago irekitzeko eta gizadiaren sufrimenduan inplikatzeko?

Baina Jesus ez da gelditzen maitasunez eginiko entrega horretan besterik gabe, baizik eta maitasun hori Berarengana bideratzen du. Bera da neurria. Jesus da neurria, pertsonak eta gure ekintzek Jainkoaren aurrean eta beti guztirako balioa izateko ala ez izateko.

Jesusek esaten digu, Bera dagoela pertsona bakoitzaren baitan. Ikusten al dut Jesus inguratzen nauten pertsona guztien aurpegian? Zein pertsonagan egiten zait zailen Jesusen aurpegia ikustea?

### “Zorionekoak bakean sufritzen dituztenak (gaixotasun eta larrialdiak)

Frantziskok laguntzen digu zera ikasten: norberaren eta besteen sufrimendua Jesusengandik bizitzen, eta Harengandik bakean eta bakearekin bizitzeko grazia hartzen. Nola bizi duzu zuk sufrimendua? Zer egiten zaizu zailago Jesusengandik bizitzen, mina eta oinazea ala edozein motatako giza mugatasunak?

Frantziskok behartsuengan Jesus Jaunaren aurpegia ikusi zuen eta, haien sufrimenduan parte hartuz, hurbildu zen Harengana. Zeintzuk dira zure zailtasunak, besteen sufrimendura hurbiltzeko? Zail egiten zaizu zeure sufrimendua besteekin partekatzea? Erabil ezazu hil hau Jainkoari eskatzeko, egin zaitzala ahul eta apal, Jainkoaren indarra zeuregan gehiago ager dadin.

### Zergatik ez duzu aldendu nigandik sufrimendu hau?

Egizu otoitz testuaz, jar ezazu Jainkoaren eskutan une honetan min ematen dizuna, eta eska iezaiozu irakats diezazula Harengana bizitzen eta zeure bizitza aldatzen, horrela Bera gizaki guztien aurpegian aurki dezazun. Utz ezazu Jauna zeure sufrimenduan presente egin dadin, eta txikien premiez egunetik egunera sentikorrago egin zaitzan.